



Naturan Hezi IV. Topaketak: Sustraiak saretuz



Eka. 27 2024

Kod. H02-24

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2024

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Eka. 27 2024

Kokalekua

TABAKALERA Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

10 ordu

Webgunea

<https://www.kutxa.eus/eu/naturan-hezi-eskola.html#enc>

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

Naturan Hezi Eskola naturaguneetan hezten duen hezkuntza-komunitatearen topagunea da, non ikastaroak eta urteko Topaketak ospatzen ditugun. Topaketen helburua gai zehatz baten inguruan sakontzea da, hizlari adituei entzunez, esperientziak partekatuz, eta ikastetxeen artean elkarlanak eta sinergiak sortuz.

Lehen edizioan, naturan hezteak ikastetxean zekarren eraldaketa pedagogikoa izan genuen aztergai, eta zeharka baina nabarmen, irakasle eta ikasleen begirada aldatu behar zela ondorioztatu genuen. Bigarren edizioan, egungo gizarte eredu antropozentristatik ikuspegi ekozentrista batera salto egitearen garrantziaz jardun genuen, begirada aldatu eta naturarekin harremantzeko ditugun moduak aldatzearen aldeko jarrerak garatuz eta partekatuz. Eta hirugarrenean, ustezko eguraldi desegokiaren aurrean ditugun hainbat ikuspegi deseraikitze gakoak aurkeztu genituen.

Aurtengo edizioan, baso-eskolaren bidez sortutako saretzeak, sinergiak edota elkarlanak jarri nahi ditugu baloreen, urte guzti hauetan zehar, bidelagun asko izan ditugulako eta sortutako elkarlan horietako asko, beste ikastetxeentzako ere eredugarriak eta baliogarriak izan daitezkeela iruditzen zaigulako. Basoko sustraien sarea hazten doalako eta horri esker, baita naturan hezten duen komunitatea ere.

OHARRA: Ikastaro honetan bazkaria barne eskainiko da TABAren eskutik.

Helburuak

Naturan hezten dutenen artean komunitatea sortu eta saretzea.

Eskolek naturan hezteko ibilbidean egin dituzten proposamen eta esperientziak ezagutzea eta partekatzea.

Naturan hezten dutenen beharrak eta zer motatako laguntza dagoen identifikatzea.

Antolakuntza



Programa

2024-06-27

09:00 - 09:15	Erregistroa / Registro
09:15 - 09:25	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Naturan Hezi IV. Topaketak: Sustraiak saretuz Irati Andoño Erdozain Kutxa Fundazioa - Baso-eskola gidaria Maialen Sistiaga Poveda Euskal Herriko Unibertsitatea - Irakaslea- Zientzia esperimentalen didaktikaren saila
09:30 - 10:30	Mahai ingurua: "Mahai-ingurua: gizarte hezitzailea eta proiektu komunitarioak." Mikel Garcia Idiakez . Argia Aldizkaria - Hezkuntza gaietako kazetaria (Moderatzailea) Aitziber Sarobe Egiguren Biologoa, unibertsitateko irakaslea eta natur kontserbazioaren aldeko ekintzailea Aitziber Leoz Etxarri Oinherri Herri Hezitzaileak sustatzeko elkarte - Oinherriko langilea
10:30 - 10:45	"Berritzeguneak eta Ingurugela-CEIDA Baso-eskolako ereduaren diseinuan eta pilotajearen jarraipenean parte- hartzea." Nere Inda Goikolea Berritzegune Nagusia, Eusko Jaurlaritza - Eusko Jaurlaritzako Berrikuntza, Aholkularitza eta Ikerketa eremua. Berritzegune Nagusia. Haur Hezkuntzako aholkularia.
10:45 - 11:00	"Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzien Didaktika Saila Baso-eskola ereduaren diseinuan eta ebaluazioan inplikazioa." Josu Sanz Alonso Euskal Herriko Unibertsitatea - Irakaslea (agregatua), UPV/EHU (zientziaren didaktika saila)
11:00 - 11:30	Atsedena
11:30 - 11:45	"Langile ikastola: eskolaren egituraren egindako egokitzapena." AGURTZANE RAMA URIA Eusko Jaurlaritza - Haur Hezkuntzako irakaslea- Ikasketa burua, Langile Ikastola
11:45 - 12:00	"SEO-Birdlife: hegaztien inguruko saioak basoan." Iñaki Martiarena Otxotorena Mattin sormena - Langile autonomia/ arduraduna
12:00 - 12:15	"Ordiziako Udala natur-eremuen kudeaketarako laguntza." Maitane Alvarez Ordiziako Udala - Ordiziako alkateordea Ibon Zabala Arrillaga Eusko Jaurlaritza - Haur Hezkuntzako irakaslea, Urdaneta Ikastetxea
12:15 - 12:30	"Tolosaldea Lanbide Heziketako ikasleak Baso-eskola irakasleen konplizeak." Asier Alonso Fernandez de Antona Eusko Jaurlaritza - Irakaslea, Tolosaldea Lanbide Heziketako Institutua
12:30 - 12:45	"Alkizako herria Baso-eskolaren parte." ANA HERNANDEZ SANCHO Eusko Jaurlaritza - Haur Hezkuntzako irakaslea- Alkizako Herri Eskola Jone Zuaznabar Urkola Eusko Jaurlaritza - Haur Hezkuntza irakaslea- Alkizako Herri

- 12:45 - 13:00 “Neiker: osasunarekin erlazioatutako artropodoen estudioa Baso-eskolaren esku.”
Aitor Cevidanes Miranda | Neiker - Animalia Osasun saileko ikertzailea
-
- 13:00 - 13:15 “Irisgarritasun unibertsalari bidea egiteko mugikortasuna bermatu.”
Nahia Aguado Alvarez | Eusko Jaurlaritza - Haur Hezkuntzako koordinazioa - Ingeleseko irakaslea-Toki- Alai ikastetxea
Laxia Urresti Fernandez | Eusko Jaurlaritza - Fisioterapeuta
Fernando Michelena Muguerza | KEMEN, desgaitasunen bat dutenen pertsonen kirol kluba - KEMEN elkarteko lehendakaria
-
- 13:15 - 13:30 “Familiak Baso-eskolan eragile.”
Naiara Zabala Irastorza | Ikastolen Elkarte - LH Ikasketa burua- Udarregi Ikastola
Iñaki Maritzalar Mendia | Udarregi Ikastola - Gurasoa
-
- 13:30 - 15:00 Bazkaria barne eskainiko da TABAren eskutik
-
- 15:00 - 16:55 Saretze dinamikak: naturan heztea proiektu komunitarioa izateko beharren eta sinergien mapa denon artean osatuz, PROMETEAREN eskutik.
-
- 16:55 - 17:00 Itxiera
Irati Andoño Erdozain | Kutxa Fundazioa - Baso-eskola gidaria
Maialen Sistiaga Poveda | Euskal Herriko Unibertsitatea - Irakaslea- Zientzia esperimentalen didaktikaren saila
-

Zuzendaritza



Irati Andoño Erdozain

Kutxa Fundazioa

Kutxa Fundazioko Baso-eskola proiektuaren gidaria da. EHUko Bilboko Irakasleen eskolan irakasle ikasketak burutu ditu, Haur Heziketan espezialitatea eta Bartzelonako Unibertsitatearen eskutik Ikaskuntza Espazioen Diseinua graduondoa burutu du. Esperientzia handia du haur eta gazteekin bai helduekin lanean, herrialde eta hezkuntza zein laguntza ezarpen ezberdinetan. Baso Eskola edo Forest Kindergarten proiektua lideratzen aritu da Eskozian urte luzez eta Bandera berdea (Eco Flag) lortzeko partaide aktiboa izan da.




Maialen Sistiaga Poveda

Euskal Herriko Unibertsitatea, Irakasle eta ikertzailea

Biologian lizentziatua, Biologia Molekularreko masterra egin zuen eta ondoren, ardien birusen eboluzioaren inguruko doktoretza. Hainbat unibertsitateetan (British Columbian edo Cagliariar, esate baterako) ikerlari gisa aritu ostean, Kutxa Fundazioan teknikari modura hasi zen eta bertan 8 urte eman ditu, ingurumen hezkuntzako proiektuetan batik bat, "Baso-eskola" eta "Naturan Hezi" proiektuetan. Hezkuntza-berrikuntzako irakasle izan da UEUko Irakasleen Prestakuntzarako Unibertsitate Masterrean eta egun, EHUko Zientzia Esperimentalen Didaktika Saileko irakasle eta ikerlaria da, Donostiako HEFA II fakultateko Lehen Hezkuntzako graduan.

Irakasleak



Nahia Aguado Alvarez

Lehen Hezkuntzan eta Atzerriko Hizkuntzan graduatua. Egun Toki Alai eskolako Haur Hezkuntzan ingeleseko irakasle eta koordinazio lanak egiten ditut eta, besteak beste, gure baso-eskola proiektuan parte hartu dut azken hiru ikasturteetan. 2020an Kutxa Ekoguneak antolatutako "Naturan Hezi" ikastaroa burutu nuen eta 2023an Bosquesuelako Goi Mailako Unibertsitate ikasketak burutu nituen.



Asier Alonso Fernandez de Antona

Jarduera Fisiko eta Kirolaren zientzietan lizentziatua. Tolosaldea Lanbide Heziketako natur gidaritzako erdi mailako zikloetako irakaslea da eta ETHAZI errendimendu handiko zikloetako arduraduna.



Maitane Alvarez



Aitor Cevidanes Miranda

NEIKER-Nekazaritza Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea, Ikertzailea

Aitor Cevidanes Miranda (Donostia, 1989). Albaitaritzan lizentziatua (Zaragozako Unibertsitatean),

"Lurreko Ekologia eta Biodibertsitatearen Kudeaketan" masterra (Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan) eta "Kontserbazioaren Medikuntza" doktorea (Txileko Andrés Bello Unibertsitatea). Gaur egun doktoratu ondoko ikerlaria da NEIKERen Animalia Osasun Sailean. Bere ikerketa-jarduera bektore artropodoen ekologian, bektoreek transmititutako gaixotasunen epidemiologian eta faunaren, etxeo animalien eta gizakien artean partekatutako gaixotasunen epidemiologian oinarritzen da, aldaketa globalaren testuinguruan.



Mikel Garcia Idiakez.

Kazetaritza lizentziatua da eta doktoretza du Komunikazioan. XIX. Rikardo Arregi Kazetari Berria Saria irabazi zuen eta bi liburu idatzi ditu: "Zeluloidezko begiradak" eta "Pape Niang. Hasiera berri bat". Hainbat hedabidetan aritua, 2004tik Argia hedabidean egiten du lan. Bertan, hezkuntzari lotutako gaiez idazten du batez ere. Hain justu, hezkuntzaren bueltako mahai-inguru eta saio ugaritan parte hartutakoa da, dinamizazio lanetan.



ANA HERNANDEZ SANCHO

Magisteritzako ikasketak. Araban 25 urte egin ondoren azkeneko 8 urteak Alkizako herri eskolan eman ditut eta 7 urte baso-eskolako proiektuarekin daramagu HHko ikasleekin. Eskola landa eremuan kokaturik naturarekin harreman handia izaten dugu eta horretara bideratzen dugu.



Nere Inda Goikolea

Berritzegune Nagusia, Haur Hezkuntza

Haur Hezkuntza diplomatua, Hizkuntzen Psikopedagogian lizentziatua eta entzumena eta mintzamenean aditua. Nire ibilbide profesionalean etapa eta eremu ezberdinetan lan egin dudana arren (Gasteizko Haurreskoetan, Boiseko ikastolan, Nafarroako eta EAeko eskola publiko askotan ordezkapenak...). 2013. urtetik EAeko Berritzegune Nagusian nabil Haur Hezkuntzako aholkulari.



Aitziber Leoz Etxarri

Lehen Hezkuntzako gradua eta Ingurumen Hezkuntzan Masterra. Goi mailako ikastaroa (unibertsitate expertoa) Pedagogia Berdean Heike Freireren eskutik. Ibilbide profesionalari dagokionez hezkuntza ez formala, ingurumen hezkuntzako hezitzaile eta azkeneko urtetatik LHko irakaslea. Oinherriko langilea eta irakaslea momentu honetan.



Iñaki Maritzalar Mendia

Ingenieritza tekniko industrialaren mekanikan espezializatua burutu nuen Donostiako eskola politeknikoan. Ibermatican sartu nintzen 2005. urtean laguntza teknikari gisa. 4 urte igaro eta gero Lesakako ArcelorMittalera mugitu nintzen eta han 3 urtez ingenieritzako sailean. Bertan ikusi nuen zerbitzu mundua gehiago gustatzen zitzaidala eta Ibermaticara bueltatu nintzen 2012. urtean. Oraingoan laguntza teknikoko saileko buru eta aholkulari gisa gaur-egun arte. 2022. urtean DBH irakasle gisa aritzeko masterra burutu nuen eta 2023an Orereta ikastolan 4 hilabetez matematikako irakasle (besteak beste) modura egon naiz.



Iñaki Martiarena Otxotorena

Haurtzarotik datorkit lurra eta sorkuntzarekiko interesa. Baratze ekologikoari lotutako formakuntza izan ostean, hainbat baratze ekologiko hezitzaileak eta dinamizatu ditut, Donostian. Ondarearen transmisioan dihardut gaur egun. Horretarako, besteak beste, arteaz eta komunikazio bisualaz baliatzen naiz. Euskarazko Haur eta Gazte Literaturaren Galtzagorri Elkarteko kidea naiz. Hainbat idazleen liburuek nire ilustrazioak daramate. BELARDO komiki pertsonaia xelebrea marraztu ohi dut. Etorrizunari arretaz begiratzen diot eta erronka berriei heltzeko prest nago. Horretarako, ezinbestekoa deritzot eragile desberdinen elkarlana.



Fernando Michelena Muguerza

KEMEN Desgaitasunen bat duten pertsonen Kirol klubeko Lehendakaria da. Era berean, kirol entrenatzailea da. Tiro-kirol egokitan kirolaria da eta 30 urte baino gehiago daramatza Kirol egokitan.



AGURTZANE RAMA URIBIA

Langile ikastolako ikasle-ohia, irakaslea, ama eta momento honetan ikasketa-burua naiz. Kimika ikasketak amaitu nituen eta bigarren hezkuntzan lanean hainbat urte eman ondoren, pedagogía gehiago eta aldaketa bat behar nuela ikusita, Haur Hezkuntza ikasi nuen. Orduz geroztik Haur Hezkuntzako irakasle naiz. Langile ikastolara EKOOGUNEko “Baso-eskola” proiektuaren eskaintza heldu zenean, ilusioz hartu zuen irakasle eta familia taldearen barruan egon nintzen. Formazioa jaso eta Langiletik EKOOGUNEko basora joaten hasi zen lehen talde horietako baten tutore izan nintzen. Maritxu, Josune, Ixiar eta Maite Ezponda aritu ginen buru-belarri lehen urratsa haietan irakasle bezala, eta Ana eta Rosa zuzendaritzatik laguntzen.




Laxia Urresti Fernandez

1998.urtez geroztik Hezkuntzan dihardut lanean Hezkuntza Premia Bereziko ikasleekin, arlo motorrean zailtasunak dituzten ikasleekin. Curriculum sarbidean laguntzen eta ahalbidetzen ahalegintzen, edo saiatzen behintzat. 2003.urtean Oposaketak gainditu, eta 10 urtez Galdakaoko Berritzegunean egon ondoren, beste hamar urte pasa nituen Irungo Berritzegunean eta aurten Donostiako Berritzegunean kokatuta nago, nahiz eta, Bidasoa bailaran lan egiten jarraitu.



Ibon Zabala Arrillaga

Heziketa Fisikoa eta Haur Hezkuntzako diplomaturak ditut Euska Herriko Unibertsitatean. 2007az geroztik Eskola Publikoan irakakasle eta azken 4 urteak Ordiziako Urdaneta eskolan, Haur Hezkuntzan. Gaur egun HHko koordinatzailea eta bost urteko tutore naiz. Aurten jarri dugu martxan Baso Eskola ekimena.



Naiara Zabala Irastorza

Pedagogian lizentziatua eta magisteritzan diplomatua, Lehen Hezkuntzako espezialitatean. 15 urtez Udarregi ikastolan irakasle bezala aritua eta azkenengo 5 urteetatik Lehen Hezkuntzako ikasketa buru da.



Josu Sanz Alonso

UPV/EHU, Didáctica de las Ciencias Experimentales

Josu Sanz Zientziaren Didaktikako irakaslea da UPV/EHUko Hezkuntza Fakultatean. Batez ere Haur Hezkuntzako Graduan ematen ditu eskolak. Bere ikerketa-interesak Unibertsitate-Eskola harremana eta naturaren ikaskuntza hartzen dituzte, besteak beste. Azken esparru horretan, Kutxa Ekogunearekin elkarlanean aritu izan da Baso Eskolako proiektu pilotuan.



Aitziber Sarobe Egiguren

HUHEZI

Biologoa, Arkamurka natura-elkarteko kidea eta natur kontserbazioaren arloan ekintzailea. Lanbidez, Mondragon Unibertsitateko irakaslea zientzien didaktikaren arloan; Zientziak Bizidunontzat hezkuntza-ereduaren baitan, tokiko kurrikuluen bidetik proiektu komunitarioen sustatzailea eta ikerlaria.



Jone Zuaznabar Urkola

Alkizako Eskolako Haur Hezkuntzako irakaslea. Baso-Eskolako formazioa Philip Bruchner, Cercedako Bosque Escuelako sortzailearen eskutik eginga du. Azken lau ikasturtetan Baso-Eskola proiektua Alkizako eskolan aurrera eramaten ari da, pilotaje moduan sortu zenetik gaur egun arte. Proiektuak lehenengo urteetan Ekogunea izan du bidelagun, eta bide honetan, nortasun propioa duen proiektua eratu da, dagoeneko Alkizako Eskolan eta baita Herrian ere txertatuta dagoelarik.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE

2024-06-27 ARTE

Orokorra

45,00 EUR

Kokalekoa

TABAKALERA Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa

Andre zigarrogileak plaza, 1 20012. Donostia / San Sebastián

Gipuzkoa